



Egoera ekonomikoa eta Merkatuak **ASTEKO LABURPENA**

2018ko martxoaren 12tik martxoaren 16rako astea


➤ **INGURU MAKROA:**

- ❖ ASTEKO DATUEN PODIUMA
- ❖ KASU DATORREN ASTEAN GAI HAUEI...

➤ **ASTE HONETAN MERKATUETAN**

ASTEKO DATUEN PODIUMA

EUROPA: KPI



Datuaren analisisia


uroguneko urte arteko inflazio-tasa % 1,1ekoa izan zen otsailean, urtarrilekoa baino bi hamarren jtxiago; mailarik baxuena 2016ko abendutik. Horrek diru-politika normalizatzeko Europako Banku entralaren planak zaildu egiten ditu, Eurostatek argitaraturiko bigarren datuaren arabera. Otsailean, energia urte arteko % 2,1 garestitu zen, iragan hilean baino hamarren bat gutxiago. erbitzuen prezioek, aldiz, % 1,3 egin zuten gora, urtarrileko % 1,2aren aldean, eta elikagai freskoak % 0,9 merkatu ziren, aurreko hilean % 1,1 garestitu ondoren. Bestalde, urte arteko inflazio-tasa, energiaren, elikagai freskoen, alkoholaren eta tabakoaren prezioen eragina kenduta, % 1ekoa izan zen, urtarrileko prezio igoerarekin bat etorriz.

Adierazlearen azalpena

CPi-a hileroko prestatzen du Eurostat/Europako Banku Zentralak. Europako etxeek kontsumitzen dituzten oinarrizko zerbitzu eta ondasunen multzoaren prezioen mailaren bilakaera erakusten du, "erosketa-saskia" izenarekin ezagutzen dena. Ez du produktuen prezioa adierazten, baizik eta batez beste haien balioa zenbat handitu edo txikitu den, ehunekotan adierazita. Balioaren aldaketak errealdearen inflazioa zehaztuko du.

ASTEKO DATUEN PODIUMA

AEB: KPI



Datuaren analisisia


Plaza % 0,2 igo zen otsailean, analisten aurreikuspenekin bat etorriz. Urte arteko inflazioa, aldiz, % 2,2ra igo zen. Azpiko KPIak, elikagaien eta energiaren prezio aldakorrak kanpoan uzten dituenak, leku % 0,2 egin zuen gora (urte arteko % 1,8) urteko bigarren hilabetean, aurreko hilean baino hamarren bat gutxiago. Ekonomialariek urte arteko % 2,3ko hazkundera espero zuten KPIrako, eta urte arteko % 1,9koa azpiko KPIrako. Bada, AEBetan inflazioaren presioak handiak direla aiezatzten du datu horrek, eta Erreserba Federalak (Fed) aste honetako bileran interes-tasak otzeko aukerak handitzen ditu; gaur egun, % 1,25 eta % 1,5 bitartean daude.

Adierazlearen azalpena

KPIa hilerok prestatzen du Lan sailak. Amerikako etxeek kontsumitzen dituzten oinarrizko zerbitzu eta ondasun multzoaren prezioen mailaren bilakaera erakusten du, "erosketa-saskia" izenarekin ezagutzen dena. Ez du produktuen prezioa adierazten, baizik eta batez beste haien balioa zenbat handitu edo txikitu den, ehunekotan adierazita. Balioaren aldaketak herrialdearen inflazioa erakazten du.

ASTEKO DATUEN PODIUMA

AEB: XEHEKAKO SALMENTAK / EKOIZPEN INDUSTRIALA



Datuaren analisisa

xehekako salmentak, urte arteko % 4 igo baziren ere, hirugarren hilabetez jarraian jaitsi ziren otsailean, motordun ibilgailuen eta beste artikulua garesti batzuen erosketak gutxitu zirelako. -% 0,1 jaitsi ziren iragan hilean (esperotako +% 0,3aren aldean). Lehen aldia da 2012ko apiriletik xehekako salmentak hiru hilabetez jarraian jaisten direla. Zatiirik hegazkorrenak kanpoan utzita, datua pixka bat positiboagoa izan zen, baina horrek ez du kentzen estatubatuarren gastua apalagoa izan zela zela zela hasieran.

Bestetik, industria-ekoizpena % 1,1 igo zen otsailean, azken lau hiletako hazkunderik handiena, erabiltzaileekin loturiko erreboteak eta petrolio eta gas eremuen eta meategien produkzioaren handitzeak lagunduta.

Adierazlearen azalpena

Xehekako salmenten adierazleak xehekako salmenta-guneetako diru-sarreraren kopuru osoa neurtzen du, eta kontsumitzailearen gastuaren ahalmen orokorra eta xehekako saltegien arrakasta neurtzen ditu. Hilero enpresei xehekako merkataritzaren egoerari buruz egiten zaizkien indikatzaileen erantzunetatik lortzen dira datuak.

Industria-ekoizpenaren indizeak (IPI) herrialde bateko industria-sektorearen adierazgarri den prezio multzo baten ekoizpenean emandako aldaketak neurtzen ditu. Ekonomia baten ekoizpen-indizea nola aldatzen den jakitea oso garrantzitsua da hazkunderaren analisia egiteko.

ASTEKO DATUEN PODIUMA

XINA: INDUSTRIA-EKOIZPENA



Datuaren analisisia

lanufakturen ekoizpena aurreikusitakoa baino azkarrago hazi zen urte hasieran, industria utsagarrien kontrako neurriak gorabehera munduko bigarren ekonomiarik handienak hazkunde-ritmo biziari eutsi ziolako, baita finantza-sistemaren arriskuak gutxitzeko ere. Industria-ekoizpena % 7,2 hazi zen urtarrila eta otsaila bitartean, 2017ko epe berdinarekin alderatuta, analisten % 6,2ko alkulua eta aurreko % 6,6a gaindituz.

Adierazlearen azalpena

Industria-ekoizpenaren indizeak (IPI) herrialde bateko industria-sektorearen adierazgarri den enpresa multzo baten ekoizpenean emandako aldaketak neurtzen ditu. Hilero enpresei industria-sektorearen egoerari buruz egiten zaizkien galdetegiaren erantzunetatik lortzen dira datuak. Konomia baten ekoizpen-maila nola aldatzen den jakitea oso garrantzitsua da hazkundearen analisia egiteko.

KASU DATORREN ASTEAN GAI HAUEI...

Data	Eremua	Adierazle a	Aurreik.
03/19	Japonia	Balantza komertziala	¥89.1b
03/19	Japonia	Urte arteko esportazioak	% 1,4
03/19	Japonia	Urte arteko inportazioak	% 16.0
03/19	Eurogunea	Balantza komertziala SA	22.5b
03/20	Erresuma Batua	Urte arteko KPIa	% 2,8
03/20	Alemania	ZEW oraingo egoerari buruzko inkesta	90.0
03/20	Alemania	ZEW inkestaren aukerak	13.0
03/20	Eurogunea	ZEW inkestaren aukerak	--
03/20	Eurogunea	Kontsumitzailearen konfiantza	0.0
03/21	Erresuma Batua	ILO langabezia-tasa 3 hilabete	% 4.4
03/21	Estatu Batuak	MBA Hipoteken eskaria	--
03/21	Estatu Batuak	Bigarren eskuko etxebizitzaren salmenta	5.40m
03/21	Estatu Batuak	Hileko etxebizitzaren salmenta	% 0,4
03/21	Estatu Batuak	Tasen erabakia Erreserba Federala	% 1,50
03/22	Japonia	PMI Nikkei fab Japonia	--
03/22	Frantzia	Markit PMI Composite Frantzia	57.0
03/22	Alemania	Markit/BME Alemania Composite PMI	57.0
03/22	Alemania	IFO enpresen egoera	114.6
03/22	Alemania	IFO aukerak	104.4
03/22	Alemania	IFOren gaur egungo ebaluazioa	125.6
03/22	Eurogunea	Markit PMI Composite Eurogunea	56.8
03/22	Erresuma Batua	Banku-tasa Ingalaterrako Bankua	% 0,500
03/22	Estatu Batuak	Hasierako langabezia-eskaerak	225k
03/22	Estatu Batuak	Markit PMI Composite AEB	--
03/22	Estatu Batuak	Fed-en fab. jarduera Kansas Cityn	18
03/23	Japonia	Urte arteko KPIa	% 1,5
03/23	Estatu Batuak	Ondasun iraunkorren aginduak	% 1,7
03/23	Estatu Batuak	Hileko etxebizitza berrien salmenta	% 5.2

JRTSAK:

ortuera desberdinak Atlantikoaren alde bakoitzean: oera apalak euroaren Europan, murrizketak Wall reeten eta emaitza mistoak Asian. Inguru makroan, EBetako inflazioaren datuak aurreikuspenak bete uen, eta horrek merkatuak baretzeko balio izan zuen, eres-tasen igoera handiago baten aurreikuspenak ez elako bete, hain zuzen. Gerra komertzial beldurgarriari ruzko albistek bereganatu zuten inbertitzaileen eta, baita Etxe Zuritik etorritako bestelako bedadeek ere. Rex Tillerson Estatu-idazkari oderatuaren kargugabetzeak eta Mike Pompeo umpen ideia berdintsuak dituen muturreko republikanoaren izendapenak mesfidantza areagotu en Estatu Batuetako presidentek neurri are otekzionistagoak ezartzeko aukeraren aurrean. Horrez lin, baliteke produktu txinatarrei 60.000 milioiko muga- rgak ezartzea, baita Estatu Batuen lurretan inbertsioan rrizketak egitea ere. Mundu mailako gerra mertzialaren mamuak, bestalde, min egin zien Estatu atuetako eta Asiako merkatuei. AEBetako iragan uteskundeetan Errusiaren esku-hartzearen eskandaluari ruzko azken nobedadeek eta Trumpen Segurtasun ntseilariaren kargugabetzeak beherantz bultzatu zituzten rtsako indizeak.

RRENTA FINKOIA:

bertitzaileek zor subiranoa erostearen alde egin zuten, ai Europan eta bai AEBetan ere, babes-aktiboaren aperean. Izan ere, AEBetan ziurgabetasun giroa zen agusi eta inflazioaren aurreikuspenek ere behera egin iten. AEBetako 2 urterako tasen gorakada eta Fed-en leraren hurbiltasuna lotuta egon litezke. Merkatuaren abera, aste honetan agintariak interes-tasak 25 op otzeko aukerak % 100ekoa dira.

BISAK/LEHENGAIK:

olarrak merkatuaren ezinegona nabaritu zuen, eta na indartuta ateratu zen hortik, gainerako truke nagusien rrean. Draghiren adierazpen bigunagoek, aktiboaren osketaren komenigarritasuna babestuz, Europako bisaren balio-igoera saihestu zuten Ipar Amerikako bisaren aurrean. Lehengaiak begira, petrolioaren ezioak pixka bat igo ziren, eskaintzaren handitzearen lineko kezka gorabehera. Hala LPEEK nola Energiaren azioarteko Erakundeak ekoizpenaren hazkunde indiagoa aurreikusi zuten 2018an karteletako kide angoko ez diren herrialdeetarako, petrolio gordinaren unduko eskariaren gaineko hazkunde aurreikuspenak inditutuz.

INDIZEAK	PREZIOA	% Aldaketa Astean	Ald. % 2018
MSCI WORLD (Eur)	177,45	-0,39	-0,79
IBEX 35	9.761,00	0,77	-2,82
DJ EURO STOXX 50	3.437,40	0,49	-1,90
DJ STOXX 50	3.015,58	-0,03	-5,11
FTSE	7.164,14	-0,84	-6,81
S&P 500	2.752,01	-1,24	2,93
Dow Jones	24.946,51	-1,54	0,92
NASDAQ	7.481,99	-1,04	8,38
NIKKEI 225	21.676,51	0,97	-4,78
MSCI GORAKORRAK (Eu)	388,01	0,81	2,40
MEXBOL	47.477,58	-2,22	-3,80
BOVESPA	84.886,48	-1,72	11,10
SHANGHAI	3.424,64	-1,13	-1,12
Errusia Rts Mosku	1.254,29	-2,43	8,65

Gobernuen tasak	Maila	Aldaketa Astean	Ald. 2018
ALEMANIA 2 URTE	-0,59	-0,03	0,04
ESPAINIA 2 URTE	-0,26	-0,02	0,09
AEB 2 URTE	2,29	0,03	0,41
ALEMANIA 10 URTE	0,57	-0,08	0,14
ESPAINIA 10 URTE	1,38	-0,06	-0,19
AEB 10 URTE	2,84	-0,05	0,44
ALEMANIA 30 URTE	1,22	-0,08	-0,04
ESPAINIA 30 URTE	2,39	-0,09	-0,46
AEB 30 URTE	3,08	-0,08	0,34
Kreditu-spreada (op)			
MARKIT ITRX EUROPE 12/22	49,70	-0,83	4,78
MARKIT ITRX EUR XOVER 12/22	251,84	-2,60	19,41

Dibisak	Maila	% Aldaketa Astean	% Ald. 2018
Dolarra / Euroa	1,23	-0,14	2,37
Yena / Euroa	130,29	-0,90	-3,66
Libera / Euroa	0,88	-0,78	-0,66
Lehengaiak			
Petrolio (Brent)	65,48	0,31	-2,01
Urrea	1.314,35	-0,68	0,87



Kutxabank Gestión SGIIC SAUk prestatu du agiri hau, eta horretarako, fidagarriak diren informazio-iturriak erabili ditu. Hala ere, ezin du ziurtatu bertan jasotako informazioa eta iritziak erabat zehatzak, zuzenak eta osoak direnik, eta ez du bere gain hartzen horren gaineko inolako erantzukizunik. Agiri honetan agertzen diren informazio eta iritziak edonoiz aldatu daitezke, aurretik horren berri eman beharrik gabe. Kutxabank Gestión SGIIC SAUk ez du agiri honen eta bere edukien erabilerak sortu ditzakeen kalteen gaineko erantzukizunik hartzen. Finantza-merkatuetan eragiketak egiteak arrisku handiak sortu ditzake, eta posizioa etengabe zaindu behar da. Txosten hau ez da eskaintza bat ez eta finantza-aktiboak erosi edo saltzeko eskaera bat ere. Agiri hau zu informatzeko besterik ez da, eta hirugarrenek ezin dute berregin edo banatu. Era berean, ezin da, inolako aitzakiapean, osorik edo zati bat argitaratu.